




Azaroan esportazioak %2,3 gutxitu ziren

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak

Urte bakoitzeko azaroa. Milioi euro




Iturria: Eustat.

2025eko azaroan, Euskaditik atzerrirako ondasunen esportazioak %2,3 jaitsi ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Produktu energetikoen esportazioak %28,5 igo ziren eta ez-energetikoenak %3,0 jaitsi. Merkataritza saldoa positiboa izan zen.

Industria prezioek behera egin dute abenduan

Industria prezioen indizea (IPRI)

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek landutako Euskadiko industria prezioen indizea %0,6 jaitsi zen abenduan urte artean. Energiaren prezioak beherakada handia izan zuen (-%8,9) eta baia kontsumo ondasunak ere -%0,4. Ekipamendu ondasunak eta bitarteko ondasunak berriz, %2,1 eta %1,0 garestitu ziren, hurrenez hurren.



Maximo berria gaualdien kopuruan

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko urtarrila-abendua. Milakoak




Iturria: Eustat

2025an zehar, Euskadiko hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %3,6 igo ziren 2024ko datu metatuarekin alderatuta. Hain zuzen ere, gaualdien kopurua zazpi milioi eta zazpiehun milatik gora egon zen, datuak argitaratzen hasi zirenetik erregistrorik handiena izanik.

Euskadiko langabezia tasa %6,3an kokatu zen

Langabezia tasa EAEn
Ehunekoak



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu duenez, 2025. urtearen amaieran, Euskadiko langabezia tasa puntu erdi jaitsi da, aurreko hiruhilekoaren aldean, %6,3an kokatuz. Zehazki, hirugarren hiruhilekoan baino 5.600 pertsona gutxiago daude langabezian. Portiera on horrek euroguneko langabezia tasaren maila berean uzten du Euskadiko langabezia tasa.